



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

ALKARTE ABEGITSUAK

GARIZUMA 2021

GAZTEAK



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

«ADISKIDE ETA SENIDE, COMUNIDADES ACOGEDORAS»

BIZITZA AZTERKETA

Honako lagungarri honeen bitartez, gazte helduen taldeetako eragile eta laguntzaileei bitarteko bat eskaini gura deusegu, maitasun eta zuzentasunaren kristau alderdia gure fedearen funtsezko osagai lez aurkeztu daien aitatutako taldeotan. 2021eko Garizuma aldi honetan, gure mundua eta munduko biztanleak gogor astintzen diharduan pandemia nabarmenduko da. Honen askotariko ondorioak (ekonomia, gizarte, osasun, politika... arlokoak) are eta mingarriagoak dira Covid-19aren aurretik be mundu-mailako gizarte desbardintasun eta injustiziazko egoeran bizi ziran pertsonentzat.

Bilboko Eleizbarrutiak bere egin gura dau Frantzisko Aita Santuak Fratelli tutti azken entziklikan egiten dauan deia: kristau alkarte osoa senidetasun handiagoaren legamia izan gaitezkan historian. Dei honi erantzuteko, gutako bakotxak bere esku dagoana egin behar dau gure alkarteak adiskide eta senidez osatutako alkarte abegitsu bihurtu daiguzan, hau da, Nazaretako Jesusen estilora bizi diran alkarte harreragile. Bizitza azterketa honek, beraz, norabide horretan aurrera egiten lagundu gura deusku.



ARGIBIDE METODOLOGIKOAK

A

PRIMERA OPCIÓN

Bizitza azterketan ohikoa danez, hiru une bereiziko doguz: ikusi, epaitu eta ekin aldiak. Lehenengo aukera honetan, aztertu eizuz arretaz eskaintzen deusuguzan lagungarriak eta hiru uneetako bakotxean proposatutako gauzetatik batzuk aukeratu. Holan, ikusi, epaitu eta ekin aldietako proposamen guztien artean batzuk aukeratuta, hiru uneak ordubete eta erdiko saioan garatu daitekezala pentsatu daiteke.

B

SEGUNDA OPCIÓN

Bada bigarrena ukera bat be: ikusi, epaitu eta ekin aldietarako idazki eta jarduera ugari proposatu danez, bizitza azterketa, bakarrean ez ezik, hiru saio desbardinetan egin daiteke, hau da, ordubeteko saio bakotxean, aldi bat garatzeko aukera dago.

1. UNEA: ERREALITATEA ABIAPUNTUTZAT HARTU - IKUSI

A. ESPIRITUARI ERREGUTUZ

Jesus Jauna, jaioterrian indarkeria jasan eta ihes egin behar izan eban familian eta zuretzat lekuri ez eban herrixkan jaio zinan gure artean. Gaur-gaurkoz be entzuten da deiadarra: "Bada lekuri nire emazte eta semearentzat?"[1] Itziko deustazu sartzen? Jainkoaren Espiritua, sentibera izan gaitezala gaur egungo garrasi eta sufrimentuen aurrean. Begiak zabal-zabalik izan daiguzala, belarriak adi-adi, entzuteko prestu, eskuak zabalik, desbardinagaz bat egiteko. Izan zaitez gure ondoan, mundu osoan senidetasuna hedatzeko egitekoa geure egiteko egin gura dogun bizitza azterketa honetan.

B. ERREALITATERA HURRERATU

Gizon eta emakumeek berezkoa dabe mobikortasuna. Antxinatik, gizon eta emakumeok mobidu egiten gara eta alde batera eta bestera joan ohi gara eta joaten gara hainbat arrazoiengaitik: aukera barriak bilatuz, lanagaitik, interes pertsonalengaitik, ikasketengaitik, ametsak bete guran... Halanda be, badira derrigorrez mobitzea dakarren prozesu migratzaileak be. Hau da, askotariko arrazoiak bultzatuta, norbanako eta familia osoek bidaiari ekiten deutse baldintza txarretan, inongo segurtasun barik. Euren jatorritik edo ohiko egoitzatik kanpo dagozan herritarren mobimentuak dira, aldi baterako mobimentuak edo iraunkorrak, eta normalean jentetza handiei dagokiezanak.



Gehienetan, gainera, pertsonak euren borondatearen aurka, derrigortuta ataraten dira euren bizilekueetatik. Gizarte, ekonomia eta politika arloan, makina bat arrazoiak eragiten dau migrazinoa, eta zer esanik ez herritarrak, eta honeen artean ahulezia gorrian eta babes barik dagozanak, gogor astintzen dabean gatazka belikoeak.

Migrazinoa eragiten daben bestelako arrazoiak be badagoz, esate baterako, basamortutzea eta beste hainbat ondorio larri dakarzan krisi ekologiko larria.

[1] 1] "Garai aretan, mundu guztiaren errolda egiteko agindu eban Augusto enperadoreak. Lehen erroldatze hau Siriako gobernari Kirino zala egin zan. Beraz, erroldatzera joan ziran danak, nor bere herrira. Jose ere, Daviden familia eta jatorrikoa zan-eta, Galileako Nazaret herritik Judeako Belen eritxon Daviden herrira igo zan bere emazte Mariagaz, erroldatzera. Maria haundun egoan. Belenen egozala, haurra izateko egunak bete jakozan, eta lehen-semea izan eban; oihaletan batu eta abere-aska batean ezarri eban, ez zan-eta ostatuan hareentzat tokirik." (Lk 2, 1-7)

Mundu osoan antzeman daiteke krisi hori baina, beste behin be, lurreko ingururik pobreenetan dau eraginik nabarmenena, hain zuzen be, euren autohornikuntzarako oinarritzko laborantzen menpe bizi diran lekuetan. Beraz, mobimentu migratzaile guztien atzean, “kanporatzaile” edo “egozle” deitu daikegun eragilea dago.

BILATI

Ikusi aldi honetan, jo iturrietara eta aurkitu datu kuantitatiboak eta koalitatiboak. Nazinoarteko erakunderen batek edo irabazi asmo bako munduko erakunde-ren baten txostena jadesi eta jarri arreta korrante migratzaileen “eragile kanporatzaile” lez jokutzen daben arrazoieta, jatorrietan, e.a. Non sortzen dira batez be?

Gazteei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, Bizkaian, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, %12 atzerritarrek dira, erdia inguru Amerikatik etorritakoak eta laurdena Afrikatik.

GALDETU BERRIRO ZEURE BURUARI

Ezagutzen dozu edo badozu hartu-emonik edo adiskidetasunik atzerriko norbaitegaz? Zure ikastetxean, lagunaren koadrilan, kirol jardueran, lantokian, badozu atzerritarrik inguruan? Kontatu daikezu horren inguruko esperientzia edo gertaerarik? Galdetu deikiezu gazte horreei zelan bizi edo sentitu daben harrera?

GALDETU ZEURE BURUARI

Bazenkian errefuxiatu gehien hartzen daben herrialdeen zerrendan Turkia, Pakistan, Uganda, Sudan eta Alemania dagozana? Zer esango zeunke zerrenda horri buruz?



Mobimentu migratorio orokor horretan, berariazko errealitate bat ikusi daiteke, benetan mingarria, adin txikiko eta gazteen zoritxarreko egoera: bidaia bakarrik egiten dabe, eta bakarrik heltzen dira herrialde 'barrira' be. Unicef erakundeak 2017an eskainitako datuen arabera, Espainian 5.380 etorkin adin txikiko egoan bakarrik, helduren baten laguntza barik harrera egin jakenean. Gailurrera iritsi zan orain hamar urteko kopuruaren antzekoa.

Adin txikiko gehienak Kanarietan, Andaluzian, Katalunian eta Euskal Herrian dagoz. Administrazino publikoaren tutoretzapean dagoz eta horregaitik jarten ditu martxan inongo laguntza barik dagozan adin txikikook babesteko eta zaintzeko. Adin-nagusitasunera heltzean, babes-sistematik kanpo geratzen dira. Horren eraginez, zehaztugabetasuna da nagusi euren bizitzetan, ez dabelako gainerako herritarren antzera bizitzeko baimenik, harrerako herrialdean eskubide eta betebeharrak izan arren. Holan, gertuko inor barik, inguru desatseginean, aukera gitxi dabe bizitzarako egitasmo barria eratzeko eta garatzeko.



Gazte gehienek ez dabe aparteko arazorik, jatorrian, egituratutako familia dabe. Asko eta asko Marokoko landa-eremuetatik dator eta, orokorrean, helburu argia daukie: lana lortu. Eta lana lortu gura dabe, senide guztiengan, bidaiari ekin deusanarengan zein jatorrizko lekuan geratu diranengan, eragina dauan egitasmo migratzaile honetan familiak egin dauan ahalegina zelanbait ordaintzeko. Familiaren mandatu honi erantzute aldera, gazte gehienek ardura handiz jokutzen dabe eta heziketa-ibilbideei ekiten deutse, lan egiteko aukera gehiago izateko. Azken 20 urteetan, 8.000 gazte ingururi egin jako harrera Bizkaian.



GALDETU BERRIRO ZEURE BURUARI



Bazenduan gazte honeen barri? Bazenkian adin-nagusitasunera heltzean inongo babes barik geratzen dirana, administrazino publikoek ez deusielako ezelango estaldurarik eskaintzen? Ikusten dozu zeure burua 18 urtegaz kale gorrian biziz edo ezezagunen bategaz konpartitzeko gela baten bila? Zelan sentituko zinateke, egunero, kale gorrian lo eginda, gosaldurik barik, erropa garbirik jantzi ezinda, dutxaririk hartu barik ikastegira joan beharko izan ezkeror? Taldean batera jarri galdera honeek eragiten deusuzan sentipen guztiak.



Bideoa[1] ikusiko dogu orain. Bertan, Abdessalam Touhamiren jasoten da 29:14etik 40:35ra. Ostean eztabaidan jarduteko galderak be egiten dira:



**BIDEOA IKUSTEKO,
KLIKATU IRUDIAN**

Zer gertatu jatzu deigarri Abdessalam Touhamiren lekukotasunean? Entzundakotik, zer ezagutzen zenduan eta zer ez? Bazenkian zelako zailtasunak izaten dabezan etxebizitza jadesteko, erroldatzeko, lana aurkitzeko? Ze amets dauka gazte honek? Ezagutzen dozu gazte etorkinen alde jarduten dauan alkarterik?

Hainbat esteka aurkituko dozue orain. Taldean, banatu eizuez eta aztertu eurotan esaten dana, danon artean errealidade hau hobeto ezagutzeko eta arrazoi eta ondorioetan sakontzeko.

A CARITASEN AUZOBIZI

Caritasen 'Auzobizi' egitasmoa, kalean egozan eta egunero Otxarkoaga ikastegira joaten ziran gazte etorkinei zuzenduta dago.



**ENTZUTEKO,
KLIKATU IRUDIAN**

**IRAKURTZEKO,
KLIKATU
IRUDIAN**



**IKUSTEKO,
KLIKATU
IRUDIAN**



[2] 2020-2021 kurtsoan, ETPlan migrazinoei buruzko mintegian erabili zan bideoa. Kasu honetan, "alkarte abegitsuen" inguruko hausnarketan erabili bakarrik.

B ALKARTE

Harrera eta gizarteratze prozesuetan jarduten dauan hainbat alkarte.

PARROQUIA
DE ALGORTA



HARRIBIDE
ARRATIA



F. ELLACURÍA
BILBAO



AGHARAS
BARAKALDO



IRAKURTZEKO
KLIKATU IRUDI
BAKOITZEAN

ITAKA - BILBAO



WEBGUNERA
SARTZEKO,
KLIKATI IRUDIAN

FUNDACIÓN ELLACURÍA- BILBAO



IKUSTEKO,
KLIKATU IRUDIAN

C GIZARTERATZE ESPERIENTZIAK

FABRICANDO SUEÑOS



IKUSTEKO,
KLIKATU
IRUDIAN

ABDELLATIF



IKUSTEKO,
KLIKATU
IRUDIAN

BAM



IKUSTEKO,
KLIKATU
IRUDIAN



GALDETU BERRIRO

Galderak, amaitu aurretik, taldean alkarrizketan jardun eta azterketa eginez, laburpena egiteko.

- Zer antzematen dozu irakurri eta entzundakoan?
- Ze arrazoik eragiten ditu egoera honeek?
- Ze ondorio dauka harrerak hartzen diran gazteengan? Eta harrera egiten dabenengan (pertsonak, familiak, taldeak, alkarteak, herria)?
- Zer antzeman dozu administrazio publikoak, alkarteak, ikastetxeak eta boluntarioek emondako erantzunetan?

C. KONTENPLAZINOZKO BEGIRADA

Lehenengo zatia amaitzeko, Jainkoaren begiak eta bihotza geure egin eta galdera honeek egingo deusaguz geure buruari:

- Eta egoera honetan, non dago biziaren Jainkoa?
- Agertzen ete da senidetasun unibertsalaren zeinu eta zantzurik?
- Zer sentitzen dau Jainkoak gazte honeek ikustean eta entzutean?
- Zer esan gura deusat une honetan Jainkoari?

2. UNEA: JAINKOAREN HITZAREN ARGITAN - EPAITU

A. BEREIZKETA PERTSONALA

Ze eretxi daukat nire inguruan bakarrik dagozan gazte eta ume atzerritarren egoerari buruz? Ze jarrera daukat egoera horren aurrean? Ze sentipen eta jarrera daukat? Ze balio eta kontrabalio agertzen dot? Ze pentsatzen, esaten eta sentitzen dabe gure inguruko beste talde eta pertsona batzuk gure inguruan bakarrik dagozan gazte eta ume atzerritarren egoerari buruz? Esate baterako:

- «Gaizkile hutsak dira eta sakelako telefonoak lapurtzen ibiltzen dira»
- «Egundoko bildurra emoten deuste eta kalean ikusten dodazanean, espaloiz aldatzen naz eurakaz ez kurutzatzeko»
- «Zelan itzi ete deutse gurasoek hona bakarrik etorten? Ez dabez maite, ala?»
- «Bizimodu duina izateko baldintzak euki beharko leukiez, baina euren herrialdean»
- «Adin-nagusitasuna jadestean, ezin doguz kalean itzi»

Nire ideal, helburu pertsonal eta sozialak kasu zehatz honetan pentsatzen eta sentitzen dodanagaz alderatu.

Ebanjelioko hainbat pasarte irakurri eta aztertuko dogu, Jesusen jarrerak ezagutu eta orain arte landutakoan sakondu ahal izateko. Bibliako beste hainbat pasarte be lagungarri izan daiteke, Eleizaren Doktrina Sozialetik hartutako idazkiak be aurkeztu daitekez. Kontua ez da idazkien zerrenda egitea, gaur egun be hitz egiten deuskun Jainkoarengana hurreratzea baino. Nire ideal, helburu pertsonal eta sozialak kasu zehatz honetan pentsatzen eta sentitzen dodanagaz alderatu.

B. BEREIZKETA EBANJELIOAREN ARGITAN

ESATE BATERAKO, EBANJELIOTIK



Mt 25, 31-40 Mt 25, 31-40: «Gizonaren Semea, aingeru guztiak lagun dituala, aintzaz beteta etortean, bere errege-aulkian eseriko da. Herri guztiak haren aurrean bilduko dabez. Harek batzuk besteengandik bereizi egingo ditu, artzainak ardiak akerretatik bereizten dituan lez, eta ardiak bere eskuman eta akerak ezkerrean ezarriko ditu. Orduan, erregeak eskumakoei esango deutse: “Zatoze, nire Aitaren bedeinkatuok; hartu eizue munduaren sortzetik zuentzat prestatua dagoan erreinua. Gose nintzan eta jaten emon zeunsten-eta; egarri, eta edaten emon; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoan, eta jantzi egin ninduzuen; gaixo, eta bisitatu; kartzelan, eta ikustera etorri”. Orduan, zintzoek esango deutse: “Jauna, baina noiz aurkitu zinduguzan goseak eta jaten emon geuntsun, edo egarriak eta edaten emon? Noiz aurkitu zinduguzan arrotz eta etxean hartu, edo larrugorri aurkitu eta jantzi? Noiz aurkitu zinduguzan gaixo edo kartzelan eta ikustera joan?”. Eta erregeak erantzungo deutse: “Benetan dinotsuet: Nire seniderik txikien honeetako edozeini egin zeuntsena, neuri egin zeunsten”.»

 Lk 9, 47-48: «Igarri eutsezan Jesusek euren burutazinoak eta, haur bat hartuta, bere ondoan jarri eta esan eutsen: «Haur hau nire izenean onartzen dauanak neu onartzen nau; eta ni onartzen nauanak, bialdu nauan ha ondartzen dau. Zeren zuetan txikiena, horixe da-eta handiena».

 Mt 11, 28: «Zatoze niregana, nekatu eta zamatuz guztiok, eta neuk emongo deusuet atsedan.»

FRANTZISKO AITA SANTUAREN FRATELLI TUTTI ENTZIKLIKATIK

Bigarren kapitulu osoa («Arrotza bidean»), samariar onaren parabolaren (Lk 10, 25-37) oinarritutakoa, egokia izan daiteke epaitu aldi honetarako.- Beste hainbat paragrafo ere irakur daiteke:

84. zenb.: «Azkenik, Ebanjelioaren beste zati batean, Jesusek hauxe dinoala gogoratzen dot: “Arrotz nintzan eta etxean hartu ninduzuen” (Mt 25, 35). Jesusek hori esan eitekean, besteen zoritxarrak bere egiten ebazan bihotz zabala eukalako. San Paulok aholkatzen eban: “Poztu pozez dagozanakaz; egin negar negarrez dagozanakaz (Erm 12, 15). Bihotzak jarrera hori hartzen dauanean, besteagaz bat egiteko gauza da, non jaio dan edo nondik datorren kontuan hartu barik. Jardunbide horretan sartzean, azken batean, ‘norbere haragi’ (Is 58, 7) dirala sentitzen da.»

85. zenb.: «Kristaudentzat, Jesusen berbek alderdi transzendentea be badabe; anai eta arreba baztertu edo kanporatu bakotxarengan Kristo bera autortzea eskatzen dabe (ik. Mt 25, 40. 45). Benetan, fedeak egundoko motibazino-andana emoten deusku bestea autortzeko, sinisten dauanak, Jainkoak gizon eta emakume bakotxa mugabarik maite dauala eta, holan, “mugabako duintasuna emoten” deusala autortzeko gauza izan daitekelako. Horrezaz gainera, Kristok guztion eta gutako bakotxaren alde isuri eban bere odola eta, ondorioz, inor ez da bere maitasun unibertsaletik kanpo geratzen. Eta iturri nagusira bagoaz, hau da Jainkoaren bizitza intimora, alkarte bizitza ororen jatorri eta eredu bikain dan hiru Lagunen alkarte aurretiko dogu. (...)»

86. zenb.: «(...) Halanda be, oraindik batzuek euren fedearen adore edo bultzadari egotzita, nazionalismo itxi eta bortitzei, jarrera xenofoboei, desbardinaren aurkako gaitzespeni edo tratu txarrei eusten deusie. Fedeak, bere baitan dauan humanismoagaz, bizirik eutsi behar deutso sen kritikoari joera honeen aurrean eta adierazteaz batera, jarrera horreei erantzuten lagundu behar dau. (...)». 86: «(...)»

C. GURE BIZITZA JESUSENAKAZ ALDERATUKO DOGUZ

Zelan islatzen da geure burua ebanjelioaren argitan egindako bereizketan? Ebanjelioak gure bizigiroan emoten eta zalantzan jarten dauanaz be jabetuko gara: Bat ete gatoz Jesusen bizitza, jarduera eta jarrerakaz? Ze balio ebanjeliko bultzaten edo baliogabetzen da hemen?



Ebanjelioan Jesusegaz bat egiteak gure bizitzaren «inguru ilunak» argitzen ditu eta guregan dagozan gauza positiboen garrantzia azpimarratzen dau. Gure inguruan bakarrik dagozan gazte eta adin txikiko atzerritarren egoera eta horrek inguruko gogoeta kontuan hartuta, ze dei jaso dogun (zer eskatzen deust Jainkoak?, zertara deitzen nau?) batera jarriko doguz. Baita taldearentzat, parrokia alkar-tearentzat edo gizartearentzat sortzen diran deiak be.

Nire inguruan bakarrik dagozan gazte eta adin txikiko atzerritarren inguruan zer ikasi dodan eta nire jarrera eta jokaeran zer aldatu, hobetu edo kendu behar dodan idatziko dot.

E. OSPAKIZUN-OTOITZA

Otoitzaldian, esker ona adieraziko dogu, parkamena eskatu, gorespena egin... eta gure inguruan, pertsonengan, Biblian, pertsonen testigantzan,... agertzen dan Jaunagaz bat egitean zelan sentitu garan azaldu...

Amaitzeko, Fratelli tutti entziklikan jasoten dan Frantzisko Aita Santuaren otoitza egin daikegu:

Jainko gurea, maitasunaren Hirutasuna,
zure jainkozko intimitatearen alkarte indarretik
isuri guregana senide maitasunaren ibaia.
Emoiguzu Jesusen zeinuetan,
Nazareteko bere familian eta hasierako kristau alkartean
islatzen zan maitasun hori.
Lagundu kristauoi Barri Ona bizitzen
eta Kristo gizon eta emakume bakotxarengan autortzen,
mundu honetako baztertu
eta ahaztuen larritasunetan kurutziltzatuta eta
altxatzen dan anai eta arreba bakotxarengan berbiztuta ikusi daigun.
Zatoz, Espiritu Santua, erakutsi eiguzu
lurreko herri guztietan islatutako zure edertasuna,
danak garrantzitsu, danak ezinbesteko,
maite dozun gizadi beraren aurpegi desbardin dirala ikusteko. Amen.

A. ANTZEMANDAKOA ZEHAZTUZ

Ekin aldira heldu gara, IKUSI eta EPAITU aldietan antzemandako guztiaren aurrean doakotasunezko sentimentuagaz. Gure esker ona errealidadea eraldatzeko ekintza txiki edo handien bidez eraginkor bihurtu gura dogu. Jainkoak ezinbestekoa dau gure konpromisoa bakarrik dagoan hainbeste hainbeste gazte eta adin txikiko atzerritar hartzeko, babesteko, integratzekoa.



- Entzuten ete dot Jainkoaren deirik gazte honeen bitartez?
- Ze jarrera hartu daiket nire inguruan?
- Egiten ete jat deirik gazte honeek helduarora igaroteko bide errazagoa izaten lagundu daidan?
- Talde lez, proposatu daikegu ekintza zehatzen bat gure inguruan?

Hona hemen egin daiteken hainbat ekintza:

- **IKUSI** aldian aurkeztutako harrerarako egitasmo, alkarte edo esperientziaren bat "gertutik" ezagutu.
- Holakoren batean boluntario lez jardun aisialdian, heziketa-euskarrian...
- Gazte migratzaileakaz batzarrak egin, kultura trukerako eta alkar ezagutzeko.
- Partaide zaran talde, komunitate edo alkarteei benetako alkarte abegitsu izateko konpromisoren bat hartzeko eskatu.
- Berbaldi edo esperientzien mahaia antolatu nire inguruan (ikastegia, parrokia, erreferentzia taldea edo aisialdiko taldea) bakarrik dagozan gazte eta adin txikiko atzerritarren egoeraren aurrean sentiberatasuna bizteko.
- Zurrumurruen aurkako jardunbidea sustatu ikastegian, lantokian, aisialdiko eremuan,...
- Kanpoko gazteren bat adiskideen sarean sartu.
- Zeuoi bururatutako besteren bat...